



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Berebar tabernan odaliska bat bezala sentitzen naiz askotan”

Ines Intxausti | Kontseilaria

Herri honetako pertsona VIP askori laguntza psikologiko, emozional eta gastronomikoa eskainiz bizi da zornotzar (Bizkaia) komunikatzailea.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Iñigo Azkona

Isabel Pantoja eta John Coltrane gurutzatzen diren lekuan, hor nonbait, ikusten zaitut.

Eta gustura. Ez ditut ghetto intelektualak gogoko. Ezta sekta politikoak ere. Ezin zara talde batekin identifikatu gogo berdinak dituzulako. Bestela ni Isabel Pantojaren kontzertuetan egongo nintzateke, oso ezagunak diren lesbiana batzuk bezala: “*Isabel, queremos una hija tuya*” oihukatzen.

Sarri (onaindia) ezagutzen duzu institutu garaitik...

Bai. Eta oso garden gogoratzen ditut berarekin bizi izandako hainbat gau eta egun. Eskola sozialeko irakaslea zen. Eta asko irakatsi zidan. Batez ere eskolatik kanpo. Umore beltzaz tindatzen zuen errealitatearen interpretazioa. Bratislavakoa zirudien durangarra baino.

Berebar tabernako “faborittoa” bilakatzeko noraino ailegatu behar izan duzu?

Ba, askotan sentitzen naiz odaliska bat bezala *Berebar* tabernan. Batez ere emakume bakarra naizen gehienetan. Zeozer aitorrezina ea egin dudan galde-tzen didazu?

Ez, aitortzeko moduko zerbait...

Batzuekin ondo *mixtifikatu* naiz. Badakizu, zibilizazioen arteko harremanak... Eta artikuluren bat edo beste ere burutu dut bertan, noski.

Zinebi film laburren jaialdian zaude lanean, Bilbo eta txikitasuna uztartzen dituen ekitaldi bakarra.

Bakar-bakarra. Bilbon dena baita handia. Halere, niretzat SS (San Schnabel)-go Zinemaldia gurea baino txikiagoa da... *baparrar*.

Tamainak norberaren tamainarekin parekatzeko dira, baina hartuko dizut pilota. Emakume handia bazara ez duzu *Chiquitoren* konf/onartu behar. Eta berriz, emakume txikia izanda, Rocco sobera da zuretzat. (Ta ni, XL omen naiz?).

Egunkarian telebista kritika idatzi zenuen zazpi urtez eta Antonia dell’Ate bezain famatu bilakatu zinen.

Famatua izatea oso arriskutsua da. Ceacescu eta Teresa de Calcuta famatuak ziren/dira arrazoi ezberdinengatik. Ni famatu bilakatu nintzen mini-herri honetan. Eta etsai asko sortu nituen oso erraz.

Horrenbeste lagun dituzun horrek, hitz egiguzu etsaiez.

Ez da oso polita, baina ni ere ez naiz. Eta itsusiagorik badago. Etsaiak ez dira inoiz ausartu, baina lekuko batzuek haiek botatakoak entzun eta gero esan didatenak... Bizkarrezurra astindu dit. Eta ez daukat bizkarrezurtzainik.

Zure kiroliek gogokoena?

Oso atsegin dut galdera. Zuk ondo baino hobeto dakizulako zein podiumetan ibiltzen naizen... Baina, aukeratzeko, golf-a telebistatik edo odola ematea...

Gerturik daukazu odola beraz.

Odola eman eta bizirik dirautenak odola eman eta hilik geratu direnak baino askoz ere gehiago dira gurean. Zorionez.

Berriki argitaratu den eleberri bateko ko-protagonista ere bazara, noraino irakur dezakezu?

Noraino idatzi dezakezun esango nizuke, aizul! Askoi maite dudun lagun baten eleberriaz ari bazara eta sarri bezala Sarriengana itzuliz: *Ni e naiz bangoa* diñotsut to! ■